

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 800.000 euroko diru-laguntza eman du Ribaforadako eguneko zentroa eraikitzeko eta ekipatzeko

Alli kontseilariak gaur eguerdian inauguratu ditu instalazioak, eta datorren astelehenean hasiko dira zerbitzua ematen

Lunes, 14 de enero de 2013

Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alli Martínezek inauguratu du gaur eguerdian Ribaforadako adinekoentzako eguneko zentroa. Azpiegitura hori bertako udalak sustatu du eta 886.355 euroko inbertsioa behar izan du; kopuru horretatik, 809.890 Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izan da.

Egunero arreta-zentroa Xabierko San Frantzisko plazan dago eta urtarrilaren 21ean irekiko da. Izena emateko epea zabalik dago.

Grupo Solera Asistencial (Seresgera) taldea arduratuko da hura kudeatzeaz, eta egunean zenbait ordutako arreta behar duten pertsonen zaintzak, tratamenduak eta ekintzak (estimulazio kognitiboa, memoria-tailerrak, fisioterapia, elikadura...) eskainiko dizkie, 09:00etatik 18:00etara.

Inaugurazio ekitaldian ere parte hartu dute Ribaforadako alkate Jesús M^a Rodríguezek eta proiektuaren arkitekto Manolo Blascok.

Ezaugarriak, eraikuntza eta finantzaketa

Azpiegiturak 414 metro koadroko azalera erabilgarria du, bi solairutan banatuta. Behekoan, ekintzetarako areto nagusia dago (100 metro koadro), jantokia (25 metro koadro), fisioterapia-gela (12,15), sukaldea (13,5) eta garbiketa-gela (12,15), administrazioaren gunea, mediku-bulegoa eta botikina eta geriatriako bainugelak. Lehen solairuan langileentzako gunea dago, eta beste espazio batzuen artean daude: aldagelak, bilkura-gela eta atsedenekua eta



Alli kontseilaria (eskuinetik 1.a) eta Rodriguez (eskuinetik 2.a) Blascoren azalpenak entzuten.



Alli kontseilaria eguneko zentroko sukaldea ezagutzen.

bulegoa.

2009an hasi zen Manolo Blascoren proiektuaren gainean eraikitzen eta bi fasetan burutu zen, 797.354 euroko inbertsioarekin. 2009an Nafarroako Gobernuak Udal horri 410.000 euroko izendun diru-laguntza eman zion zentroko lehen fasea finantzatzeko (fase horretarako aurreikusitako guztia estaltzen zuena). 2010ean eguneko landa-zentroetarako diru-laguntzen deialdiaren barnean, 309.883,32 euroko beste diru-laguntza bat eman zitzaion (bigarren faserako onartutako aurrekontuaren % 80, 387.354,16 eurokoa).

Gainera, Udalak 89.000 euro inbertitu du ekipamenduan, Nafarroako Gobernuak [diruz lagundutako](#) zenbatekoa (emandako laguntza ez da ehuneko ehunean egikaritu). Udalak zentro hori sustatu zuen 2008an egindako beharren azterketa baten arabera.

Galería de fotos



Eguneko zentroko fisioterapia-gela.